



JANTOKI ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIOA

2025-26 ikasturtea

GURE JANTOKIA

Jantokian zerbitzatzen den gure sukaldean egiten bada ere, enpresa baten esku daude bai jakien horniketa bai jantokiko langileen kontratazioa.

Enpresa honen aukeraketa Eusko Jaurlaritzak egiten du. Aurreko ikasturtean bezala, MEDITERRANEA enpresak egingo ditu zerbitzu horiek.

TXANDAK - Bazkaltzeko garaian, iraila eta ekaineko lanaldi jarraieko egunetan txanda bakarra egingo da eta jardunaldi arrunta dagoenean, aldiz, 2 txandatan bazkalduko dugu:

JARDUNALDI TRINKOA	HH <i>Irailak 8tik 11era</i>	LH <i>Irailak 8tik 11era</i>	DBH <i>Iraila osoa</i>
IRAILA	13:00etan	13:00etan	14:30ean

JARDUNALDI ARRUNTA	HH <i>Irailak 12tik ekainak 8ra</i>	LH <i>Irailak 12tik ekainak 8ra</i>	DBH <i>Urritik maiatzera</i>
TXANDA 1	12:30 - 13:15	12:30 - 13:15	12:40 - 13:15
TXANDA 2	13:30 - 14:15	13:30 - 14:15	13:30 - 14:10

JARDUNALDI TRINKOA	HH <i>Ekainak 9tik 19ra</i>	LH <i>Ekainak 9tik 19ra</i>	DBH <i>Iraila osoa</i>
EKAINA	13:00etan	13:00etan	14:30ean

JANKIDE MOTAK

- OHIKO JANKIDEAK

Ikasturte osoan geratuko diren ikasleak dira. Astean 3 egunetan gutxienez bazkaldu beharko dute eta egunak zehaztu behar dira urriaren 15a baino lehen.

*TARTEKO OHIKO JANKIDEAK: Banatutako guraso-zaintzagatik edota guraso edo tutoreen lanagatik, ikasturtean zehar astez aste nahiz hilez hil txandaka ibili daitezkeen ikasleak.

Kuota **4,6 €** egunekoa izango da (garraiatuak badira **3,30 €**).

- NOHIZBEHINKAKO JANKIDEAK

Ikasturteko edozein momentutan gehitu daitezke. Ikasturtean zehar noizbehinka geratzen diren jankideak dira. 48 orduko aurrerapenarekin abisatu beharko da (salbuespenak albavespen).

Kuota **5,20 €** egunekoa izango da.

MENU MOTAK

Ikasle bakoitzak jango duen menu mota dagoeneko jantokiko arduradunari jakinarazi zaio betetako galdetegietan, eta hauek dira:

- Arrunta
- Txerririk gabekoa
- Obolaktobegetarianoa
- Obolaktobegetarianoa arrainarekin
- Alergia / intolerantzia (medikuaren ziurtagiria helarazi behar zaio zentroari)

- MENUA EZAGUTZEA:

Menua eskolako [Web orrian](#) edo Mediterranea enpresak duen aplikazioan egongo da eskuragarri eta baita eskola barruko jantokiko kortxoan ere. Paperean ere helaraziko zaie familiei.

1. Deskargatu “mediterranea educación” aplikazioa
2. Erregistroa osatu zure datuekin (izen-abizenak, NAN, emaila)
3. Eskolaren kodea sartu: 20002
4. Erregistroa bukatzean mezu elektroniko bat jasoko duzue konfirmatzeko.
5. Erregistroa konfirmatu ondoren bigarren mezu bat jasoko duzue, bertan zuen erabiltzailea eta gakoa agertuko dira. Hauekin aplikazioan sartu zaitezke.
6. Aplikazioan, zuen seme-alabek jaten duten menua aukeratu eta eguneko zein hilabeteko menua ikusi eta deskargatu ahal izango duzue (menu batzuk faltatzea posiblea da).

*Jakinarazi nahi dizuegu ikasturte honetan familiek menuen atzeko aldean agertzen den QR-a sakatu ahal izango dutela hiler, elikadura integratiboarekin lotutako hainbat jolas eta erronketan parte hartzeko:



JARDUNALDI TRINKOA

Iraileko eta ekaineko jardunaldi trinkoan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleak 14:00etatik 14:30etara jaso beharko dira; bestela, etxera bakarrik joateko baimena edo senide batekin joateko baimena sinaturik ekarri beharko dute.

2 URTEKO IKASLEAK

2 urteko ikasleek egokitzapen tartea dute ikasturte hasieran; beraz, beranduago hasiko dira jantokian. Ikasle bakoitzaren beharraren arabera erabakiko da noiz hasi.

2 urteko gelako ikasleek, bazkaldu ostean, lo-kuluxka egiten dute. Egutero, ikasleek ohar bat eramango dute eguerdiko informazioarekin (nola jan duten, lo egin duten...).

MENU ALDAKETAK, ERRESERBAK GEHITZEA ETA FALTAK

Aldaketaren bat egin nahi izanez gero, 48 ordu lehenago egin beharko da. Egun berriak erreserbatzeko edo ikaslea jaten geratuko ez dela jakinarazteko: HH eta LHko familiek mezu bat bidali dezakezue jangela@alegiakoeskola.org helbidera. Ikaslearen tutoreari mezu berdina bidaltzea eskertuko genizueke. DBHko ikasleek Aralarren bitartez egingo dutelarik: 943 89 91 35.

Mezuan honako hau adierazi beharko da: jankidearen izen-abizenak, ikasmaita eta taldea, geratuko ez den eguna(k)/geratuko den eguna(k) eta jaten duen menu mota.

Alta berria baldin bada, hau da, ikaslea ez baldin bada inoiz jantokian geratu eta lehenengo aldiz geratuko bada, izen-ematea egin beharko du aurretiaz.

ORDAINKETAK

10 kuotatan ordaintzen da, irailtik ekainera. Jantokirako beka eskatzeko aukera dago (uztailean hasiko dira beka eskaerak).

a. Kuotaren kobrantza bankuaren bitartez egiten da eta hilaren 10ean helbideratzen da:

- ➔ 1. kuota irailekoa izango da, baina urriaren 10ean kobratuko da eta azkeneko kuota ekainekoa izango da, baina uztailaren 10ean kobratuko da.
- ➔ Nahiz eta ez etorri jantokira iraila eta ekaineko egunetan berdin-berdin ordainduko da jantokia 10 kuotatan (proportzionalki hainbanatuak bertaratze egunak, noski).

- b. Aurreko ikasturtean beka jaso zuten familiei ez zaie kuotarik kobratuko kontrakoa ez badute esaten. Beka onartzen ez bada, aurre egin beharko diote jantokian sortu den zorrari.
- c. Kuoten ordainketan bankuko itzulpena egonez gero, hurrengo hilabeteko kuotetan birkalkulatzen da automatikoki. Itzulpenak errepikatzen badira, eskolako zuzendaritza edo jantokiko arduraduna familiarekin harremanetan jarriko da jarraitu beharreko pausuez informatzeko. Ordainketak burutuko ez balira edo bankuko itzulketek jarraituko balute, jankideek jangela zerbitzua gal dezakete.
- d. Ikasturte berria hastean, eskolarekin zorra duten ikasleek ezin izango dute jantokiko zerbitzua erabili.

DESKONTUAK

Astebete baino gehiago huts egiten bada (lehen hutsegite egunaren aurretik justifikatzen den bitartean) %50aren deskontua aplikatuko da.

Ikasturtean zehar ikasle batek baja ematea erabakitzen badu kuotaren kitapena egingo zaio.

Irteerak edo egonaldiak daudenean kuota ERDIAren itzulketa egiten da. Menu bakoitzaren erdia begiraleak ordaintzeko erabiltzen da eta hori ez da deskontatzen.

BEGIRALEEN ZERRENDIA

Jantokiko begiraleak mailaka banatuta egongo dira eta begirale berdinekin egongo dira patioan zein jantokian.

Zerbitzuaren kalitatea bermatzeko eskolako jantokiko arduradunak eta jantokiko lan taldeak erabakita, aldaketak egin ahal izango dira antolakuntza honetan:

IKASMAILA	BEGIRALEA(K)
HH	M ^a ANGELES eta ANA Z.
LH	M ^a JOSE, MIREN eta IDOIA
DBH	MARIAN, ANA C. eta CRISTINA

JANTOKI HEZIGARRIA eta JANTOKI BATZORDEA

2025-2026 ikasturtean zehar “**Jantoki Hezigarria**” egitasmoarekin jarraitu nahiko genuke. Helburu nagusiak hauek dira:

- Jantoki orduan sortzen diren gatazkak murriztea eta hauen kudeaketa hezigarria izatea. - Ikasleen garapen integrala sustatzea eta haien inplikazioa handitzea. - Elikadurari buruzko gaiak lantzea eta ohitura osasungarriak zabaltzea.

Horretarako, **jantoki batzordea** sortu beharko genuke: zuzendaritza taldeak, jantokiko arduradunak, jantokiko hezitzaileek eta familiek osatuko lukete batzordea.

Interesa duen edozein familiak parte har dezake, partaide kopurua ezin izango da 10 pertsonatik gorakoa izan.

Batzordean parte hartzeko interesa emailaz helaraziko zaio jantokiko arduradunari jangela@alegiakoeskola.org helbidean.

ZALANTZAK eta ARGIBIDEAK

Zalantzak izatekotan edo informazio gehiago behar izanez gero jantokiko arduradunarekin harremanetan jarri zaitezke **943 65 32 37** telefono zenbakian edo jangela@alegiakoeskola.org helbide elektronikoan.

Jaurlaritzak ere badu jantokien inguruko informazioa duen [orrialdea](#).